



JARDUEREN OROITZA

2025

#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA,
ADMINISTRACIÓ DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓ DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO

**JARDUEREN
OROITZA
2025**



AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	4
2. Zer da IVAP?	6
3. Antolaketa	10
4. IVAPeko datuak	18
5. Zerbitzuak eta produktuak	21
6. Argitalpenak	54



1 Aurkezpena



Administrazio Publikoaren Euskal Institutuak (IVAP) 2025eko Jardueren Oroitza aurkezten du, erakundea osatzen duten pertsonen lanari, konpromisoari eta bokazio publikoari aitortza eginez. IVAP ez da egitura bat soilik; IVAP bere langileak dira, eta haiek dira urtez urte institutua aurrera eramaten duen benetako motorra.

2025a intentsitate handiko urtea izan da, erronka berriei erantzuteko gaitasuna, egokitzeko malgutasuna eta ikuspegi estrategikoa uztartu dituguna. Horren guztiaren atzean, egunero lanean aritu diren profesionalak daude, ezagutzarekin, inplikazioarekin eta zerbitzu publikoarekiko konpromiso sendoarekin.

Memoria honek urtean zehar garatutako jarduera nagusiak biltzen ditu, baina, batez ere, pertsonen lanaren emaitza da: prestakuntza eskaintza eguneratzea, ezagutzaren kudeaketa, berrikuntza publikoaren sustapena eta administrazioen arteko lankidetzaren indartzea ahalbidetu dutenen lana. Haien esfortzuari esker, IVAPek gizartearen beharrei lotutako balioa sortzen jarraitu du.

Langileen gaitasun profesionalak eta giza balioak izan dira 2025eko jardunaren oinarri. Horri esker, administrazio publikoaren modernizazioan laguntzen duen erakunde gisa jardun dugu, herritarrengandik hurbilagoa, eraginkorragoa eta prestatuagoa den administrazioa eraikitzen lagunduz.

lido horretan, lankidetzaren, konfiantza eta erantzukizun partekatua izan dira IVAPen eguneroko jarduna gidatu duten ardatzak. Era berean, institutuarekin batera lan egin duten pertsona eta erakundearen ekarpena ere funtsezkoa izan da, baina betiere IVAPeko langileen ezagutza eta gidaritzapean.

Memoria honen bidez, egindako lana ez ezik, pertsonengan oinarritutako eredu baten aldeko apustua ere azpimarratu nahi dugu: erakundea egiten duten pertsonak zaindu, balioetsi eta ahalduntzea, etorkizuneko administrazio publikoaren oinarri sendoena direlako.

Era berean, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet IVAPeko langile guztiei, haien eguneroko lanagatik, inplikazioagatik eta erakundearekiko duten konpromisoagatik. Haien jakintzak, jarrerak eta bokazio publikoak egiten dute posible IVAPen jarduna eta aurrerapena. Profesional bakoitzaren ekarpenari esker, institutuak erronkei erantzuteko gaitasuna izan du, kalitatea, berrikuntza eta zerbitzu publikoarekiko ikuspegi partekatua oinarri hartuta. Halaber, IVAPekin lankidetzan aritu diren pertsona eta erakundeei ere eskerrak eman nahi zaizkie, elkarlan horrek balio publikoa sortzea eta gure jarduna sendotzea ahalbidetu duelako



Leire Corales Gotti

IVAPeko zuzendaria

2

Zer da IVAP?



IVAP erakunde autonomoa da, eta Eusko Jaurlaritzaren Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari atxikita dago. Euskal Autonomia Erkidegoko

administrazio publikoen zerbitzura bideratzen du bere zeregina, eta hiru jardun-eremutan sailka daitezke haren xedeak:



3/2023 Legegintzako Dekretuak¹ honako hauek hartzen ditu bere egituraren eta eginkizunen alderdi esanguratsutzat:

- Zortzi helburu zehazten ditu eta, helburu horiek aurrera eramateko, Atalak, Sailak edo Zerbitzuak antolatzeke bidea zabaltzen du.
- IVAPi aurrekontu propioa ematen dio.
- Erakundearen aginte-erakundeak sortzen ditu, eta nola osatuko diren eta zein eginkizun izango dituzten zehazten du. Zaingo Batzordea eta Zuzendaritza dira erakunde horiek.
- IVAPen egoitza Gasteizen egongo dela ezartzen du.²

¹ 3/2023 Legegintzako Dekretua, irailaren 21lekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

² Legeak ezartzen zuen IVAPeko egoitza Oñatiko Unibertsitate zaharrean egongo zela, eta, 2007an, egoitza Vitoria-Gasteizera eraman zen (2/2007 Legegintza Dekretua, Euskadiko ondareari buruzko testu bategina onartzen duena).



EGITURA



Zuzendaria Leire Corrales Goti

IVAPeko zuzendaria, besteak beste, erakundearen ordezkaria izango da, eta bertako langileen burua. Berak emango ditu egiaztagiria, tituluak eta diplomak; gainera, gastuak baimendu eta ordainketak aginduko ditu.




Euskara Zuzendariordetza

Edurne Ramon Olano

Euskararen erabilera normalizatzea, itzulpengintza, terminologia eta euskarazko administrazio-hizkera finkatzea.

Zuzendariordetza honetakoak dira:

- Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzua.
- IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
- Terminologia Zerbitzua.



Koordinazio eta Kudeaketako Idazkaritza

Nagore Alberdi Berasaluze

Zerbitzu eta atal guztiak koordinatuko ditu, eta zuzendaria ordezkatu du hura ez dagoenean. Bere mendeko zuzenak dira:

- Zerbitzu Orokorrak.
- Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua.
- EVETU Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola.



Hautaketa eta Prestakuntzako Zuzendariordetza

Imanol Uriguen Garaizabal

Bere egitekoa hautaketa eta prestakuntzari dagozkion lanak betetzea da. Horretarako, zerbitzu hauek ditu:

- Prestakuntza.
- Hautaketa.



LANTALDEA

Pertsonak

IVAPen, 134 pertsonak lan egiten dute, 96 emakumek eta 38 gizonek, modu honetan banatuta:

1. taula IVAPeko pertsonak			
Lanpostua	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
Zuzendaria	1		1
Idazkari nagusia	1		1
Zuzendariordeak	2		2
Goi-kargudunaren idazkaria	1		1
Zerbitzuburuak	4	2	6
Arloburuak	5	1	6
Teknikariak	59	23	82
Administrazio-langileak	22	11	33
Laguntzako langileak	1	1	2
Guztira	96	38	134

Lantokiak eta helbideak

Langile gehienek Gasteizko egoitza dute lantoki, Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusia (Lakua), alegia. Hala ere, herritarrek IVAPen beste hiru egoitza hauek ere eskueran dituzte haien kudeaketak egin ahal izateko: Bilbokoa, Donostiakoa eta Oñatikoa.

IVAP - **Gasteiz**ko egoitza
Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

IVAP - **Bilbo**ko egoitza
Rekalde zumarkalea 18, 1
48009 Bilbao

IVAP - **Oñati**ko egoitza
Unibertsitateko etorbidea
20560 Oñati

IVAP - **Donostia**ko egoitza
San Bartolome kalea, 28
20007 Donostia

3 Antolaketa





2025-2028 aldirako Plan estrategikoa

Seigarren plan estrategikoa aurreko 2021-2024 Plan estrategikoaren ebaluaziotik ondorioztatutako emaitzen fruitua da, batetik, eta IVAPek 2024an egin duen hausnarketa estrategikoarena, bestetik.

IVAPen 2025-2028 aldirako Plan estrategikoak erakundearen lanaren oinarriak jasotzen ditu eta etorkizuneko ekintzen norabidea ezartzen du. Estrategia honen helburua da administrazio eraginkor, berritzaile eta herritarrentzat eskuragarri bat sendotzea, langile kualifikatuen hautaketa, prestakuntzaren sustapena, euskararen normalizazioa eta digitalizazioa kontuan hartuta.

Bestalde, IVAPek Misioa, Ikuskera eta Balioak berritu ditu, etengabe hobetzeko eta testuinguru berrietara egokitzeko konpromisoan. Eguneratze hori ezinbestekoa da IVAPen zeregina indartzeko, administrazio publikoaren profesionalizazioan, eraldaketan eta modernizazioan erreferente izan nahi baitu.





Misioa

Euskal administrazio publikoen eraginkortasun eta hobekuntza bultzatzea; herritarraren zerbitzura dagoen gertuko administrazioa, kalitatezkoa, elebiduna eta berdintasun printzipioak betetzen dituena.

➤ **Langile kualifikatuak eta konprometituak hautatzea**

Hautaketa-prozesu gardenak eta eraginkorrak diseinatzea, talentudun langileak hautatuko direla bermatzeko; enplegu publikoari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako printzipioak jarraituta.

➤ **Etengabeko prestakuntza eta garapena**

Langile publikoen gaikuntza teknikoa, etikoa eta linguistikoa bultzatzea, gizarte dinamiko baten erronkei aurre egiteko eta gizarteari zerbitzu eraginkorrak bermatzeko.

➤ **Euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea**

Euskal Autonomia Erkidegoaren kultura-nortasuna islatuko duen administrazio elebiduna finkatzeko, euskalduntzeko prestakuntza ematea, euskaraz lan egiteko baliabideak eskaintzea, euskarazko terminologia finkatu eta zabaltzea, eta itzulpengintza eredu berritzailea bultzatzea (hizkuntza-teknologiak baliatuta).

➤ **Aholkularitza, laguntza teknikoa eta berrikuntza**

Ikerketa eta jarduera akademikoak sustatuko dira, kudeaketa publikoaren osagaiak eta eragileak hobetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan.

➤ **Digitalizazioa eta modernizazioa**

Zerbitzu publikoetan eraldaketa teknologikoa bultzatzea, administrazio eskuragarriagoa, eraginkorragoa eta berritzaileagoa lortzeko.

Ikuskera

Erreferentziazko erakunde izatea administrazio publikoen profesionalizazioan, eraldaketan eta elebitasunean; eta produktu eta zerbitzu berritzaileak eskaintzea pertsoneri zein entitate publikoei. Horretarako:

- Erronkei aurre egiteko prest dauden **profesionalak** izan nahi ditu IVApek: lankidetzak, arduraz jokatzeko gaitasuna eta etengabeko ikaskuntza bultzatuko dutenak.
- **Eraldaketa digitala eta kudeaketa aurreratua** helburu dira, zerbitzuen kalitatea hobetzeko eraginkortasuna eta digitalizazioa uztartuta.
- **Euskara zein administrazio elebiduna** sustatu nahi du.
- **Genero-berdintasuna, jasangarritasuna eta gardentasuna** bultzatu nahi ditu, gizartearekiko konfiantza eta konpromisoa indartzeko eta eredu inklusiboago eta bidezkoago bat eraikitzeko.
- **Erakundeen arteko lankidetzak eta etengabeko ikaskuntza**, administrazioaren erantzuteko gaitasuna indartuko duten aliantza estrategikoak garatuta.



Balioak

Enplegu Publikoa arautzen duten balio eta printzipio etikoez gain, IVAPek honako hauek ere azpimarratu nahi ditu:

➤ Zerbitzu publikoa

IVAPen lana herritarren eta gizartearen egungo eta etorkizuneko beharrei erantzutea da.

➤ Lantaldearekiko konpromisoa

IVAPeko profesionalak dira erakundearen balio erantsiaren funtsezko osagaia.

➤ Euskara eta elebitasuna

Administrazio publiko elebiduna bermatzeaz haratago, euskararekiko konpromisoa IVAPen oinarrietako bat da.

➤ Gardentasuna eta konfidantza

Argitasunez, gertutasunez eta etikoki jarduten dugu herritarrenganako konfiantza indartzeko.

➤ Berrikuntza eta digitalizazioa

Teknologia-tresnak eta digitalizazioa sustatzen ditugu premia berrietara egokitzeko eta zerbitzuen kalitatea hobetzeko.

➤ Lankidetzeta eta erantzukidetasuna

IVAPen oinarri ditugu talde-lana, erakunde arteko lankidetzeta eta ikaskuntza partekatua.

➤ Berdintasuna eta inklusioa

Berdintasunaren eta aniztasunaren alde egiten dugu, genero-arrakalak desagerrarazi eta gizarte aniztasunari erantzuten dion administrazio parekideagoa eraikitzeko.

Plan estrategikoaren dimentsioak


IVAPen 2025-2028 aldirako Plan estrategikoak hiru dimentsio jorratzen ditu: zeharkako dimentsioa, zerbitzuen dimentsioa eta dirulaguntzen dimentsioa.

Zeharkako dimentsioak IVAP osoari eragiten dio, eta helburu nagusia Institutuaren funtzionamendua hobetzea da, ikuspegi orokor batetik. Dimentsio honen helburua erakundearen barne-hobekuntzan oinarritzen da, eraginkortasuna, kohesioa eta koordinazioa sustatuz, IVAPen alderdi guztietan eragiteko. Zazpi lan-ildo ditu:

- Talentua sustatzea ingurune osasungarri eta produktibo batean
- Antolamendu-eraldaketa eta kudeaketa berritzailea
- Erabiltzaileengan ardaztutako zerbitzuak
- Komunikazio eraginkorra
- Eraldaketa digitala eta prozesuen modernizazioa
- Euskararen erabilera sustatzea
- Berdintasuna sustatzea

Zerbitzuen dimentsioak, bestalde, IVAPeko zerbitzu bakoitzaren ikuspegi zehatza hartzen du, bakoitza helburu zehatzak betetzera bideratuta. Horrela, IVAPeko zortzi zerbitzu bakoitzak bere helburu eta estrategia espezifikoak izango ditu bere funtzionamendua eta emaitzak hobetzeko eta, horrela, IVAPen misioa betetzeko.

Dirulaguntzen dimentsioak, azkenik, IVAPek kudeatutako dirulaguntzen lerroak definitzen ditu, eta bere lehentasun estrategikoekin lerrokatzen ditu.





MISIOA

Euskal administrazio publikoen eraginkortasun eta hobekuntza bultzatzea; herritarraren zerbitzura dagoen gertuko administrazioa, kalitatezkoa, elebiduna eta berdintasun printzipioak betetzen dituen.

IKUSKERA

Erreferentziako erakunde izatea administrazio publikoen profesionalizazioan, eraldaketan eta elebitasunean; eta produktu eta zerbitzu berritzaileak eskaintzea pertsonei zein entitate publikoei.

BALIOAK

Zerbitzu publikoa Lantaldearekiko konpromisoa Euskara eta elebitasuna Gardentasuna eta konfidantza Berrikuntza eta digitalizazioa Lankidetzeta eta erantzukidetasuna Berdintasuna eta inklusioa

ZEHARKAKO ATALA

Plan estrategikoa 2025-2028

ZERBITZUEN ATALA

Talentua sustatzea ingurune osasungarri eta produktibo batean

Antolamendu-eraldaketa eta kudeaketa berritzailea

Erabiltzaileengan ardaztutako zerbitzuak

Komunikazio eraginkorra

Eraldaketa digitala eta prozesuen modernizazioa

Euskararen erabilera sustatzea

Berdintasuna sustatzea

Zerbitzu orokorrak

Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua

Lurralde eta Hiri Ikastetarako Herri Eskola (EVETU)

Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzua

Itzultzaile Zerbitzua (IZO)

Terminologia Zerbitzua

Hautaketa Zerbitzua


Prestakuntza Zerbitzua



Jarraipena

Plana urteko kudeaketa-planen bidez gauzaten da, programatutako ekintzak zehaztuz. Gainera, planaren jarraipena egiteko jarraipen eta kontrol-taulak daude. Bertan, planifikatutako ekintza bakoitzari lotutako adierazleak zehazten dira, eta aukera ematen dute helburu estrategikoak zenbateraino bete diren eta zenbateraino lortu diren ebaluatzeko.

- **Helburu Estrategikoak:** erakundearen erronka edo behar jakinei erantzuteko diseinatuta daude.
- **Ekintzak:** espezifikoak, neurgarriak eta errealistak dira, eta helburua lortzeko beharrezko pausoak adierazten dituzte.
- **Adierazleak:** adierazle neurgarriak eta konkrituak dira, ekintzen arrakasta eta aurrerapena modu objektiboan ebaluatzeko.



Pertsonak

Plan estrategikoa onartzearekin batera, IVAPek lanean jarraitzen du IVAPeko pertsonekin.

- **Pertsonen gogobetetzea ebaluatzea:** prozesu honen bederatzigarren edizioa egin dugu.
- **Pertsonen harrera:** IVAPeko langile berrien bi jarraipen-inkesta egiteko prozesua hobetu dugu. 2025ean, bi harrera masibo egin ditugu, Eusko Jaurlaritzaren hautaketa-prozesuak amaitu ondoren Institutuan lanean hasi diren pertsona kopuru handia zela eta.
- **Pertsonen agurra:** prozesua berrikusi dugu eta inkesta bat egiten hasi zaie IVAPen lan egiteari uzten dioten pertsoneri.
- **Iradokizunen postontzia:** prozedura berrikusi dugu eta erantzuteko epeak laburtu ditugu. Hortaz, Zuzendaritzak hamabost egunean behin erantzuteko konpromisoa hartu du.
- **Prestaivap:** IVAPeko pertsonen prestakuntza plana. IVAPeko langileen eskarietatik eta behar-diagnostikotik abiatuta lantzen den urteroko plana da.
- IVAPeko **Zerbitzuen kartetako ebaluatzaileen taldea**, Q-epeako Zerbitzu-kartak ebaluatzeko taldearekin lankidetzan.
- Lantalde egonkorrak edo proiektuekin lotuta.

Esker onak

Institutuak urtero aitortzen eta eskertzen ditu IVAPeko pertsonak, hainbat arrazoirengatik. 2025ean, zehazki, Manu Arrasate, Imanol Uriguen, Martin Rezola, Lourdes Arruti, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Alazne Etxebarria eta Susana Jauregialzo omentzeko eta agurtzeko ekitaldia egin zen, Institutuan urte asko eman ondoren erretiroa hartu baitzuten.



Ebaluazioak

Urtero, IVAPek Q-epearen ebaluazioaren mende jartzen ditu bere zerbitzu-kartak. Q-epea Kudeaketa aurreratuan lan egiten duten euskal erakunde publikoen sarea da, eta 2006az geroztik da sare horretakoa.

Q-epeak metodologia propioa garatu du, bi urtean behingo ebaluazio objektiboa, errepikagarria eta independentea bermatzen duena.

2025ean, Q-epea zigilua lortu dute Prestakuntza zerbitzuak eta Liburutegia/Dokumentazio guneko Zerbitzu-kartak.

Zerbitzuak

Zerbitzuei dagokienez:

➤ **Zerbitzu-kartak:** erakundeak sei karta ditu, urtero berrikusten ditugu eta bi urtez behin ebaluatzen ditu Q-epea kudeaketa aurreratuaren aldeko euskal erakunde publikoen sareko ebaluatzaileen Klubak, non IVAPek parte hartze aktiboa duen 2006tik. Hauek dira zerbitzuetako kartak:

- Hautaketa: herritarrei zuzenduta
- Hautaketa: administrazioei zuzenduta
- IZO, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala.
- Prestakuntza
- Liburutegia / Dokumentazio-gunea.
- Hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko karta.

➤ **Zerbitzuen katalogoa:** urtero berrikusten dugu.

➤ Zuzeneko erabiltzaileak diren **bezeroen gogobetetasuna** neurtzen dugu, IVAPeko zerbitzuak jaso dituzten euskal administrazioetako langileak izaten baitira (ikastaroetan, jardunaldietan eta abarretan parte-hartzaile) eta kasu zehatz batzuetan herritar guztiak (langileak hautatzeko probetan, jardunaldi jakin batzuetan...). Horiei guztiei jasotako zerbitzuaren gogobetetasuna adierazteko inkesta betetzeko eskatzen diegu.



4

IVAPeko datuak





Aurrekontua: 19.794.000 €

Parte-hartzaile
prestakuntza-ekintzetan

19.933

Hautaketa-epaimahaietan
parte hartzea

416

Itzuli edo
berrikusitako hitzak

19.168.655

Enplegatu publikoak
prestakuntzarako
dirulaguntzen programan

81.039

IVAPen web
orriko bisitak

5.062.931

Argitalpenak

15



Aurrekontua eta jarduerari buruzko datu nagusiak

- Aurrekontua: **19.794.000 €**.
- Formakuntza ekintzetan **19.933** pertsona:
 - Prestakuntza arloa: **16.779**
 - EVETU: **646**
 - Hizkuntza-prestakuntza arloa: **2.508**
- Prestakuntzarako dirulaguntzen programa, erakunde publikoetako **81.039** pertsonentzat
- **416** parte-hartze hainbat erakundetako hautaketa-epaimahaietan
- **19.168.655** hitz itzuli edo berrikusi dira
- **24** sarrera euskaraz eta beste horrenbeste gaztelaniaz argitaratuta Administrazio Hizkera Arloak kudeatzen duen blogean
- **10.611** gailu mugikorretan dago deskargatuta Adi Ivap aplikazioa.
- **15** argitalpen: **6** liburu eta **9** aldizkari-ale:
 - *Administrazioa Euskaraz*: **4** ale
 - *Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkaria*: **3** ale
 - *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria*: **2** ale
- **521** funtzionariok egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat
- **7.765** monografia eta aldizkari-izenburu liburutegiko funts osoa osatzen dutenak
- **30** monografia (24 erositara eta 6 dohaintzan edo IVAPek argitaratuta), **18** aldizkari-izenburu (12 harpidetzan eta 3 dohaintzan edo IVAPek argitaratuta) liburutegian jasota, eta **3** datu-base erabilita
- **5.062.931** saio erregistratu ditu webguneak, **456.597** erabiltzaile eta **1.711.984** sesio izan ditu
- Adi Ivap aplikazioaren **10.6611** instalazio: Android-en 8.273 eta 2.338 Apple-en





5

Zerbitzuak eta
produktuak



Prestakuntza

Prestakuntza orokorra

Prestakuntza-programak eta planak


- Prestakuntza-modalitatearen arabera:
 - Lineako prestakuntza.
 - Aurrez aurreko prestakuntza.
- Irismenaren arabera:
 - Zeharkakoak.
 - Administrazio batek edo administrazio-unitate batek berezkoak dituenak.

Prestakuntza-beharren diagnostikoak

Administrazio edo erakunde publiko batek eskatuta, kolektiboaren prestakuntza-beharrak aztertzen dira metodologia desberdinak erabiliz.

Prestakuntzaren ebaluazioa

Ikaskuntzaren ebaluazioa egiten da, probetxua ebaluatzeko estandarrak aplikatuz.



Transferentziaren ebaluazioa: prestakuntzaren bitartez eskuratutako ezagupenak eta trebeziak lanpostura transferitu diren ebaluatzea.

Prestakuntza-ekintzen homologazioa

Homologazio aginduan oinarrituta, ikastaroa bera ziurtatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa

Programa honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten dutenen garapen profesionala bultzatzeko beharrezko prestakuntza bideratzea.

Hau da Prestakuntza-programaren xedea: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak etengabe hobetzea.

Berdintasunari buruzko prestakuntza

Indarrean dagoen araudiak, 2023ko martxoaren 16ko Dekretu Legegile 1/2023aren arabera, euskal botere publikoetako langile guztiek derrigorrez jaso behar dute emakumeen eta gizonen berdintasunari eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren prebentzioari buruzko oinarritzko, progresiboa, jarraitua eta derrigorrezkoa den prestakuntza. Era berean, genero-ikuspegia modu zeharkakoan txertatu behar da prestakuntza-eskaintza osoan, baita berdintasunari berriaz eskainita ez dagoenean ere.

Betebehar hori 2023ko testu bateginak ezartzen duen funtzio publikoko gaitze-marko orokorraren parte da; horrek eskatzen du genero-ikuspegia txertatzea prestakuntzaren plangintzan, diseinuan eta gauzatzean, bai eta harekin lotutako administrazio-jardueretan ere.

2. taula Prestakuntzaren programazioa eta jarraipena (2022-2025)				
Kontzeptua	2022	2023	2024	2025
Aurreikusitako prestakuntza-ekintzen kopurua	644	803	848	866
Egindako ikastaro kopurua	601	720	767	779
Ikastaroen betetze-maila (%)	93,30	89,66	90,44	89,95
Matrikula kopurua	13.620	16.796	17.886	16.779
	E= 8.985	E= 10.729	E= 9.404	E= 10.733
	G= 4.411	G= 5.874	EB= 2	EB= 1
	DG*= 224	DG*= 193	G= 5.455	G= 5.577
			DG*= 3.025	DG*= 468
Ikaskuntzarekiko asebetetzearen adierazle orokorra * 2	7,3	8,48	8,22	8,43
Irakasleak edukiak emateko erabili dituen antolaketa eta metodologiari buruzko adierazle orokorra * 3	7,5	7,52	7,26	7,72
Berdintasun arloan aurreikusitako prestakuntza-ekintza kopurua	24	38	30	16
Berdintasun arloan egindako prestakuntza-ekintza kopurua	21	29	29	13

* E= emakume / G= gizon / EB= ez binarioa / DG= daturik gabe

*2 = 2023an Transferentziarekin lotutako faktoreen galdetegia hasi zen erabiltzen eta adierazlearen izena egokitu da. Aurreko urteetan "ikasleen asebetetzearen adierazle orokorrari" dagokio.

*3 = 2023an Transferentziarekin lotutako faktoreen galdetegia hasi zen erabiltzen eta adierazlearen izena egokitu da. Aurreko urteetan "Irakasleekiko asebetetzearen adierazle orokorrari" dagokio.

3. taula Prestakuntzaren ebaluazioa	
Helburuen lorpena duten prestakuntza-ekintza kopurua	782
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa	% 81
Matrikula kopuru osoaren gaineko aprobetxamendu-ziurtagirien ehunekoa (lineako ikastaroetan eta mistoetan)	% 80





4. taula Homologazioa

Homologazio-espediente kopurua	58
Behin-behineko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa	% 100
Behin betiko homologazioa duten prestakuntza-ekintzen ehunekoa	% 100
Erakunde eskatzaile kopurua	58

5. taula Garapen profesionala lantzeko prestakuntza-programa (2022-2025)

Erakundeak	Prestakuntza				Langileak*			
	2022	2023	2024	2025	2022	2023	2024	2025
Udalak	28	23	22	22	10.528	11.126	11.835	11.212
Foru Aldundiak	3	3	3	3	8.950	8.973	8.848	8.266
EHU-UPV	1	1	1	1	1.671	1.906	1.547	1.547
Eusko Jaurlaritzaren Sailak	0		0	0	--	--	--	--
Eusko Jaurlaritzaren erakunde autonomoak	0		0	0	--	--	--	--
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	1	1	1	1	11.950	11.948	11.950	11.950
Osakidetza	1	1	1	1	26.400	26.400	26.400	26.400
Irakasleen prestakuntza	1	1	1	1	20.048	25.410	20.048	20.048
Guztira	35	30	29	29	79.547	85.763	81.039	81.039

*Prestakuntza-planetak hartzaileak



EVETU:

Hirigintza eta Ingurumenari buruzko prestakuntza

Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskola (EVETU), 1986an sortu zen eta Bilbon dago. Lurraldearen antolamenduaren, hirigintzaren eta ingurumenaren arloan oinarritzen du bere prestakuntza-, ikerketa- eta hedapen-jarduera.

Prestakuntza honen hartzailak administrazio publikoetako langileak eta aipatutako diziplinetako profesional pribatuak dira.

Urteko programazioaren barruan sartzen dira, batetik, hirigintzako eta lurralde-ikasketetako ikastaro modularra (iraila-ekaina), eta, bestetik, urtean zehar egiten diren ikastaro monografikoak eta jardunaldiak.

Hirigintzako eta Lurralde Ikasketetako ikastaroa

Ikastaroa sei eskola-modulu teoriko-praktikok osatzen dute (700 ordu). Modulu horiek osorik egin daitezke deialdi bakar batean edo banaka; eta aukerako praktikak egin daitezke erakundeetan edo enpresetan (420 ordu). Sei moduluak egin ondoren, IVAPEk «Hirigintzako diploma» ematen du.

- I. modulua: Derecho Administrativo (Bilbo)
- II. modulua: Normativa sobre Ordenación del Territorio, Legislación Sectorial y Medio Ambiente (Bilbo)
- III. modulua: Ordenación y Planeamiento Urbanístico (Bilbo eta Donostia*)
- IV. modulua: Ejecución de la ordenación urbanística (Bilbo eta Donostia*)
- V. modulua: Garantía y protección de la ordenación urbanística (Disciplina urbanística) (Bilbo eta Donostia*)
- VI. modulua: Proyecto de ejercicio profesional (Bilbo)

* Modulu guztiak Bilbon ematen dira, baina III., IV. eta V. moduluetan Donostian egiteko aukera dago (nahikoa eskabide egonez gero). Beraz, edizio bakoitzean Donostian emandako moduluen datuak alda daitezke.

2025ean, "L (50) Hirigintzako eta Lurralde Ikasketetako Ikastaroa" (2024-2025) amaitu da, hiru modulu eginda (IV, V eta VI), eta "LI (51) Hirigintzako eta Lurralde Ikasketetako Ikastaroa" (2025-2026) hasi da, lehenengo hiru moduluak emanda (I, II, III). Modulu guztiak Bilbon eman dira, III. modulua izan ezik, Donostian ere emango baita, baina 2026an. Beraz, azken horren datuak 2026ko jardueren oroitza kontuan hartuko dira.





Ikastaro monografikoak

Hirigintzari, Lurralde Antolamenduari eta Ingurumenari buruzko ikastaro monografikoak eta jardunaldiak:

- Jornada sobre novedades en urbanismo (Bilbo)
 - Hacienda Local, especial referencia al urbanismo (Bilbo)
 - Uso del Visor geoEuskadi (Bilbo eta Gasteiz)
 - Licencias y comunicación previa. Diferentes regímenes de intervención (Bilbo)
 - Perspectiva de género en el planeamiento territorial urbanístico (Bilbo)
 - Curso básico de urbanismo (Bilbo)
 - Valoraciones urbanísticas (Bilbo)
 - “Decreto 45/2025, de 18 de febrero, de regulación de los estándares urbanísticos”: Presentación (Bilbo, Donostia eta Gasteiz (2))
- Aurrekoez gain (gaztelaniaz), euskaraz eman dira:
- Hirigintza ikastaroa (Bilbo eta Donostia)
 - GeoEuskadi bisorearen erabilera (Bilbo eta Donostia)



6. taula EVETUko datuak 2025*							
	Prestakuntza-ekintzak	Prestakuntza-ekintzak, lortutako helburuak zehaztuta	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Emakume kopurua %	Eskaintako ordu-kopurua	Ziurtagiri kopurua %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	111	55	% 50	700	% 96
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia**	0	0	0	0	0	0	0
Ikastaro monografikoak	16	16	513	303	% 59	223	% 94
Guztira	22	22	624	358	% 57	923	% 95

*Datuak urte naturalean

**Donostiako edizioak egitea (3 modulutan egin daiteke), modulu bakoitzean izena ematen duten pertsona kopuruaren arabera erabakiko da. Hau da, gutxieneko pertsona kopuru bat egon behar da modulu hori garatu ahal izateko.

6. taula EVETUko datuak 2024*							
	Prestakuntza-ekintzak	Prestakuntza-ekintzak, lortutako helburuak zehaztuta	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Emakume kopurua %	Eskaintako ordu-kopurua	Ziurtagiri kopurua %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	130	78	% 60	700	% 100
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	3	3	43	24	% 56	391	% 98
Ikastaro monografikoak	12	11	208	129	% 62	209	% 100
Guztira	21	20	381	231	% 61	1.300	% 99,7

*Datuak urte naturalean



**6. taula EVETUko datuak 2023***

	Prestakuntza-ekintzak	Prestakuntza-ekintzak, lortutako helburuak zehaztuta	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Emakume kopurua %	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagiri kopurua %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	140	87	% 62	700	% 97
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	3	3	47	32	% 68	391	% 100
Ikastaro monografikoak	11	9	190	130	% 68	201	% 95
Guztira	20	18	377	249	% 66	1.292	% 97

*Datuak urte naturalean

6. taula EVETUko datuak 2022*

*Datuak urte naturalean	Prestakuntza-ekintzak	Prestakuntza-ekintzak, lortutako helburuak zehaztuta	Matrikulak	Zenbat emakume matrikulatuta	Emakume kopurua %	Eskainitako ordu-kopurua	Ziurtagiri kopurua %
Modulu bidezko ikastaroak. Bilbo	6	6	149	77	% 52	700	% 99,4
Modulu bidezko ikastaroak. Donostia	2	2	26	19	% 73	276	% 100
Ikastaro monografikoak	12	7	244	142	% 58	214,5	% 98,6
Guztira	20	15	419	238	% 57	1.190,5	% 99

*Datuak urte naturalean

Hizkuntza-prestakuntza

Hizkuntza-eskakizunak lortzera bideratutako euskara-ikastaroak

➤ A1, A2, B1, B2 eta C1 hizkuntza-mailak prestatzeko ikastaroak:

- Egunean bi zein bost orduko ikastaroak dira, urrian hasi eta maiatz-ekainera bitartekoak. Horrez gain, lau asteko edo lau hilabeteko barnetegiak eskaintzen dira. Udan, ikastaro trinkoak antolatzen dira.
- Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira.

➤ C2 hizkuntza-maila prestatzeko ikastaroak:

- Aurrez aurrekoak nahiz autoikaskuntzakoak izaten dira, astean hiru egunetan.

Deialdi bakoitzean, interesdunak modulu bat eska dezake, eta zerbitzu zuzendariak edo erakundeko arduradunak baimendu behar du modulua. IVAPek eskainitako modulu horiek lanorduetan edo lanorduz kanpo egin daitezke. Lanorduetako prestakuntzaren kasuan, administrazioko taldeak osatuko dira hiru hiriburuetan, aurrez aurreko modalitatean bakarrik. Administrazio talde batean ezin bada sartu, eskatzaileak matrikula-kodearen bidez egin ahal izango du ikastaroa, baita lanorduetan ere, berak aukeratzeko duen euskaltegian. Euskaltegiak HABEK homologatua izan behar du.

Lanorduz kanpoko ikastaroak, bai aurrez aurrekoak, bai autoikaskuntzakoak, matrikula-kodearen bidez egingo dira, HABEK homologatutako edozein euskaltegian. IVAPekin lankidetzaren hitzarmena duten erakundeetako langileek lanorduz kanpo bakarrik egin dezakete autoikaskuntza ikastaroa.



ELEBI programa

ELEBI programak berriazko laguntza eskaintzen die erabilera-plan barruan sartuta dauden Eusko Jaurlaritzako langileei. Urtean bi mintegialdi daude: urritik otsailaren lehenengo hamabostaldira eta otsailaren bigarren hamabostalditik ekainera arte. Prestakuntza hori ahozko jarduna zein idatzizko dokumentuak euskaraz egin behar dituzten langileentzat da, eta laneko jardunaren arabera, antzeko interes komunikatiboak dituztenekin osatzen dira mintegiak: dirulaguntzak kudeatzen dituzten langileak, lege-aholkulariak, estatistikariak, web-kudeatzaileak, harrera postuetan dauden langileak.

Mintegi horiek sail bereko partaideek edo sailartekoek osatzen dituzte. Alegia, sail ezberdinetakoak ere izan daitezke partaideak, baldin eta lan eginkizun berberak badituzte.

Oro har, mintegietan lau eta sei partaide bitarteko lan-taldeak osatzen dira, astean ordu eta erdiz, batez beste. Taldeko prestakuntzaz gain, langile bakoitzak hilean bi orduko tutoretza pertsonala izaten du tutorearekin.

Tutoreekin batera, egitasmoaren beste eragileak sailtako normalkuntzako teknikariak dira, IVAPekin lankidetzan aritzen baitira mintegiak antolatzeko. Izan ere, beraiek ezagutzen dituzte ondoen langileen benetako behar komunikatiboak.



Lan-jardunari lotutako berariazko hizkuntza prestakuntza

Euskara lan hizkuntza izateko helburua betetzeari begira antolatzen da berariazko hizkuntza prestakuntza.

Euskararen erabileran eragiteko xedez eskaintzen dira bai aurrez aurreko, bai lineako eta baita jardun biko ikastaroak ere, administrazio langileentzat (Ikusi 11. taula).

IDAZLAGUN programa

Eusko Jaurlaritzako langileek sortutako euskarazko idazkiak zuzentzen dituzte idazlagunek, bai eta testuak sortzean izan ditzaketen zalantzak argitu ere. Ohiko zuzenketa izan beharrean, zuzenketa didaktizatua egiten dute, alegia, zuzenketekin batera, oharren bidezko azalpenak txertatzen dituzte. Sarritan, testuan sakontzeko baliabideak ere ematen dizkiote erabiltzaileari.

Zuzenketa maila eta azalpenak erabiltzailearen hizkuntza mailara egokitzen dira. Ez da hiperzuzenketarik egiten: jatorrian idatzitakoa ahal den gehien errespetatzen saiatzen dira, hala ere, berrmatuko dute testuak zuzenak, koherenteak eta egokiak direla.

Zalantzak argitzeko zenbait bitarteko eskaini ohi dira: posta elektronikoa, telefonoa eta aurrez aurreko arreta. Era berean, erabiltzaileak hitzordua eska dezake idazlagunak egindako zuzenketak azaltzeko eta zalantzak argitzeko. Zuzenketak oso azkar bideratzen dira, betiere testuaren luzeraren arabera, baina eskaera gehienak egunean bertan zuzentzen dira.

Idazlagun

7. taula Idazlagun programa

Erabiltzaile kopurua	304
Zuzenketa eskaera	414
Zuzendutako hitz-kopurua	465.901
Kontsultak	77
Erabiltzaileen gogobetetze indizea	9,44

8. taula Hizkuntza-prestakuntzako ikasleak (2024/2025 ikasturtea)

	Astean 10 ordu	25 ordu, Barnetegia	Auto-ikaskuntza	4.HE	Udako ikastaroak	Besterik	Guztira
Eusko Jaurlaritzak	218	54	113	104	43		416
Foru-administrazioak	110	25	24	36	17		213
Toki administrazioak	184	7	73	41	29		286
Osakidetza	888	65	343	3	61		1.234
UPV/EHU	25	11	2	2	2		44
Beste batzuk	19	0	4	3	2		68
Guztira	1.444	162	559	189	154	0	2.508 E = 1.923 G = 585

9. taula ELEBI

Mintegi kopurua	5
Langile kopurua	26

* E= emakume / G= gizon



10. taula Hizkuntza-prestakuntza, euskararen erabilera-planean daudenentzat					
	Taldeak	Ikasleak		Taldeak	Ikasleak
2. HE: Birziklatze ikastaroa	6	55	Lenguaje inclusivo	7	135
3. HE: Birziklatze ikastaroa	0	0	Mezu elektronikoko egokiak idatzi	4	51
4. HE: Birziklatze ikastaroa	5	41	Ahozko jarduna aberastu	1	7
Aurrez aurreko eta telefono bidezko harrera, oharrak eta mezu elektronikokoak	1	7	2. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	2	14
Euskaraz lan egiteko interneteko baliabideak	2	10	3. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	4	39
Propuestas para la mejora del lenguaje administrativo	2	19	4. HE: Idatzizko azterketa prestatzeko ikastaroa	8	90
Testu argiak euskaraz: hitz-ordena eta puntuazioa	6	82	2. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	1	4
Esaldi luzeen itzulpena	2	15	3. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	4	41
Euskara ingurune digitalean	1	6	4. HE: Ahozko azterketa prestatzeko ikastaroa	4	30
Jendaurrean aritzeko estrategiak	2	14	Itzultzaile neuronal testugintzan	0	0
Itzultzaile neuronal testugintzan	0	0	Erabiltzaile gaitutik aditurako bidean: C2 atarikoa	3	32
2. HE: Birziklatze ikastaroa +	0	0	Euskararen normalizazio juridikoa	0	0
3. HE: Birziklatze ikastaroa +	1	7	Bilera eraginkorrak: aurrez aurrekoak eta birtualak	0	0
20 aholku hizkera juridikoa hobetzeko	3	36	Hizkera argia administrazioan	3	21
Administrazioan komunikazioa erraztu	3	29	Gozatu eta komunikatu	2	10
Bilera-akta eta txostena	2	20	Weberako nola idatzi	1	8
Bilera-deia, eskabidea eta ziurtagiria	1	9	Euskaraz ahaldundu	0	0
Cómo escribir para la web	2	20	Hizkera Juridikoa	2	17
Euskaltzaindiaren arauak	2	27	Hizkuntza inklusiboa	5	61
Gutuna eta ofizioa	2	17			
			GUZTIRA	94	974





Pertsonen hautaketa eta konpetentzien ebaluazioa

Epaimahaietan parte hartzea

Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legeak araututakoa betez, IVAPek titular eta ordeko bana izendatzen ditu euskal administrazio publikoetako funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko deitzen diren hautaketa-prozesuak aurrera eramaten dituzten epaimahaietan parte hartzeko.

Lankidetzeta eta aholkularitza hautaketa-prozesuetan

Hautaketa-prozesuari ekin aurretik, IVAPek laguntza- eta aholkularitza-lana eskaintzen du (oinarri ereduak bidali, oinarriak aztertu, ikasgaiak taxutu, aholkularitza juridikoa...); baita prozesuan zehar ere (logistika, lokalen kudeaketa, probak...).

Probak prestatzea edota zuzentzea

Zenbait administrazioek eskatuta, hautaketa-prozesuetako probak diseinatzeko, aplikatzeko eta zuzentzeko IVAPek.

Proba psikoteknikoak eta elkarrizketak egitea



Lanpostuen egokitasuna ebaluatzeko probak taxutzea, aplikatzea eta zuzentzea edo euren ezaugarri tekniko eta pertsonaletara doitzeaz arduratzen da IVAP: elkarrizketak, proba psikoteknikoak eta abar.

Enplegu publikoko eskaintzak, prozesu handiak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzionario edo lan-kontratuko langile finko izateko antolatzen diren hautaketa-prozesuak kudeatzen ditu IVAPek.

Aldi baterako lan-eskaintzak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren aldi baterako langile-beharrei erantzuteko, lan-poltsak eratzeko hautaketa-prozesuetarako deia egin eta horiek kudeatzen ditu IVAPek.

2021eko otsailean indarrean sartu zen Eusko Jaurlaritzaren lan-poltsari buruzko araudiaren ondorioz, lanpostuak aldi baterako betetzeko Atariko lan-eskaintzetarako deia egin eta horiek kudeatzen ditu IVAPek.

Lan-eskaintza publikoei buruzko informazioa eta kontsulta-aukera Adi Ivap aplikazioan eta webgunean

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek egindako enplegu-eskaintzei buruzko informazio egoki eta eguneratua emateaz, eta *adi Ivap* aplikazioaren bidez kontsultatzeko aukera eskaintzeaz arduratzen da IVAP.

Adi Ivap aplikazioa martxan jarri genuen 2022ko otsailean eta orduan desagertu zen harpidetzeta zerbitzua. 2025ean, Adi Ivap 2.338 deskarga izan zuen IOS sisteman eta 8.273 Android sisteman, 10.611 guztira.



11. taula Hautaketa-prozesuetako datuak (2022-2025)

	2022	2023	2024	2025
Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak (prozesu kopurua)	210	551	535	446
Epaimahai kalifikatzaileetan parte-hartzeak (erakunde kopurua)	69	100	145	95
Epaimahai arruntetarako izendapenak (titularrak eta ordezkioak)	330	1065	1015	892
Euskara probarako izendapenak (titularrak eta ordezkioak)	220	633	694	614

12. taula Lankidetzeta-motak (2022-2025)

	2022		2023		2024		2025	
Lankidetzeta jaso duten erakunde publikoak	30		21		67	% 50,37	40	% 24,54
Azterketak prestatzea (test eta garapen erakoak)	27	% 23,08			0	% 0	3	% 1,84
Irakurgailu optikoz azterketak zuzentzea	35	% 29,91	53	% 75,71	48	% 36,09	90	% 55,21
Proba psikotekniko eta elkarrizketak egitea	31	% 26,50	1	% 1,43	4	% 3	17	% 10,43
Bestelako aholkularitzak (oinarriak aztertzea, txostenak, aholkularitza orokorra...)	24	% 20,51	16	% 22,86	14	% 10,52	13	% 7,98

13. taula Enplegu publikoko eskaintzak (2022-2025)

	2022	2023	2024	2025
Lan-poltsak handitzeko prozesu kopurua	1	4	0	1
Eusko Jaurlaritzako EPEra deitutako prozesuak	138	2	0	1
Atariko lan-eskaintza kopurua		8	0	1

*2022ko otsailetik aurrera desagertu da harpidetza zerbitzua, Adi Ivap aplikazioa martxan jarri genuelako.



Hizkuntza-eskakizunak

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko ohiko deialdiak

Ohiko deialdiak sei hilabetean behin antolatzen ditu IVAPek Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileentzat. Hauek dira 2025ean egindako deialdien emaitza orokorrak:

14. taula Emaitza orokorrak				
Deituak	Aurkeztutakoak		Gainditutakoak	
9.359 E = 6.071 G = 3.281 EB = 7 DG* = 0	6.095 E = 4.052 G = 2.042 EB = 1 DG = 0	% 65,12	521 E = 323 G = 198 EB = 01 DG = 0	% 8,55

* E = emakume / G = gizon / EB = EZ-Binarioa / DG = daturik gabe.

15. taula Emaitza orokorrak deialdiko		
Deituak	Aurkeztutakoak	Gainditutakoak
Lehen deialdia	3.931 E = 2.571 G = 1.359 EB = 1 DG* = 0	351 (% 8,93) E = 216 G = 135 EB = 0 DG = 0
Bigarren deialdia	2.164 E = 1.481 G = 683 EB = 0 DG* = 0	170 (% 7,93) E = 107 G = 63 EB = 0 DG = 0

* E = emakume / G = gizon / EB = EZ-Binarioa / DG = daturik gabe.

2025ean, ohiko deialdien bidez, 521 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.

Ohiko deialdien azterketak egiteko egunak

2025_1 deialdiko azterketak: azterketa idatzia apirilaren 12an egin zen eta ahozko azterketak ekainaren 11n, 12an eta 13an.

2025_2 deialdiko azterketak: azterketa idatzia urriaren 25ean egin zen eta ahozko azterketak abenduaren 11n eta 12an.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi bateratuak

Administrazio Publikoko erakundeek (udalak, foru aldundiak, etab.) lanpostuak betetzeko hautaketa-prozesuak deitzen dituztenean, IVAPi eskatzen diote hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak egiteko eta zuzentzeko.



Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdia



Hautaketa-prozesuotako hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko, deialdi bateratuak antolatzen ditu IVAPek, bat edo bi hilean. Eraginkortasunari begira, hainbat administrazioari edo hautaketa-prozesuari lotutako hautagaiek hartzen dute parte deialdi berean. 2025. urtean, hauek izan ziren egindako deialdi bateratuak:

16. taula Deialdi bateratuak					
Lurraldea	Deialdi kopurua	Deitutakoak	Aurkeztutakoak	Gainditutakoak	
Araba	4	710	401 (% 56,48)	49 (% 12,22)	
Bizkaia	4	E = 378 G = 328 EB = 3	E = 212 G = 186 EB = 2	E = 19 G = 30 EB = 0	
Gipuzkoa	4	DG* = 1	DG = 1	DG = 0	

*E= emakume / G= gizon / EB= EZ-Binarioa /DG= daturik gabe.

2025ean, deialdi bateratuen bidez, 49 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat.

Ohiko deialdiez eta deialdi bateratuez gainera, berriazko hautaketa-prozesuetako deialdietan ere aplikatu egiten dira hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probak. 2025ean desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako Gasteizko Udaleko prozesuan parte hartu dugu.

Gasteizko Udaleko prozesu horretan 40 hautagaik parte hartu dute eta hamazortzik gainditu dute (% 45).

2025ean, hautaketa-prozesuen bidez, 18 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat. Halaber, deialdi bateratu zein hautaketa-prozesuen bidez, 67 azterketarik egiaztatu dute hizkuntza-eskakizunen bat. Hortaz, 588 hizkuntza-eskakizun egiaztatu dira, guztira, 2025ean.



Azterlan eta ikerkuntzaren sustapena

Ikerketarako laguntzak

Administrazio Publikoari buruzko azterketak eta ikerketak, edozein ikuspegi zientifikotatik egindakoak, eta administrazio publikoarekin lotutako Zuzenbide Publikoari buruzko azterketak eta ikerketak egiteko deialdia diseinatzea eta kudeatzea. Deialdian aurkeztutako azterketek eta ikerketek Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio eta administrazio publikoen jardunaren arloarekin lotura izan behar dute.

Ikerketa sariak

Jesús María Leizaola sarirako deialdia diseinatzea eta kudeatzea, euskal autonomia edo XXI. mendeko politika publikoen garapenean eragina duten erronei aurre egiteko gobernanta publikoa xede duten eta edozein ikuspegi zientifikotatik egindako ikerlanetarako.

Lege eta antolakuntza arloko aholkularitza lanak

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak antolatzearekin eta hobetzearekin zerikusia duten gaien gainean, eskatu dizkiguten azterlanak eta txostenak egitea, aholku-eskeei erantzutea eta gai horiei buruzko arauen aurre-egitasmoak prestatzea.

Aldizkarien kudeaketa

Zerbitzuak bi aldizkari hauen idazkaritza teknikoaren kudeaketa egiten du: *Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkariarena* eta *Pertsonak eta Antolakunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkariarena*.

17. taula Ikerketa-lanak eta laguntzak

Esleitutako laguntza lanak egiteko deialdia
2024-2025

Deialdia hutsik geratu da

Esleitutako laguntza lanak egiteko deialdia
2025-2026

«El sector público vasco: de la asignación de recursos a la prestación de servicios. Un modelo de evaluación de las políticas públicas en el ámbito financiero». (Nerea Urrutia Torrealdai eta José Ignacio Ansoategui Fernández De Arroyabe)

Leizaola Saria 2025: Epaimahaiak, aho batez, erabaki du:

- «Jesús María Leizaola» saria Xabier Arzoz Santisteban jaunak aurkeztutako «Las normas forales de los Territorios Históricos» lanari ematea.
- «Jesús María Leizaola» sariaren akzesita David Fernández Rojo jaunak aurkeztutako «De Europa a los municipios vascos: gobernanza multinivel y participación ciudadana en el reasentamiento de personas refugiadas» lanari ematea.




Jardunaldi eta mintegi berezituak

Topaketak taxutzea eta antolatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren berezitasunei, Administrazioaren Zientziari edo Zuzenbide Publikoari lotutako gaietan sakontzeko.

18. taula Jardunaldi eta mintegi berezituak			
Izenburua	Data	Lekua	Parte hartzaileen kopurua
Migrazio- eta asilo-itun berria aztergai. Lurraldearen eta Oinarrizko Eskubideen ikuspegitik egindako hausnarketak	Uztailak 14, 15 eta 16	On-line + Donostia-San Sebastián	29







Argitalpenak eta liburutegia / Dokumentazio-gunea

IVAPeko Liburutegia / Dokumentazio-gunea ikerketa eta kontsultarako zentro espezializatua da, hirigintza eta ingurumenean espezializatua.

Bere eginkizuna da laguntza dokumentala eta bibliografikoa ematea eta hirigintzaren zein ingurumenaren alorreko adituen edo interesdunen informazio-beharrei erantzutea, izan Eusko Jaurlaritzako langilea, izan kanpoko langilea; horrez gain, EVETUri (Lurralde Ikasketetarako eta Hirigintzarako Euskal Eskola) laguntzea prestakuntza-jarduerak garatzen eta zabaltzen, eta ikasleei laguntze aldera.


Zerbitzu hauek ematen dira:

Erreferentzia eta informazio bibliografikorako zerbitzua

Liburutegia / Dokumentazio-gunearen sarbide eta erabilpen arauetarako buruzko kontsulterei erantzuten zaie, baita eskaintzen dituen funts, baliabide eta zerbitzuei buruzko ere.

Halaber, informazioa eta dokumentuak bilatzeko aholkuak ematen zaizkie erabiltzaileei. Eskatutako materiala liburutegian ez badago, horiek aurkitzeko eta beste liburutegi edo zentro batzuetan eskuratzeko orientazioa ematen da.

Zerbitzu honen bitartez, informazio-eskaerarekin lotutako bibliografia espezializatuak egiten dira.



Azkenik, liburutegiaren berezko edo kanpoko baliabideak nola erabili ikasteko prestakuntza eskaintzen da, online katalogoa erabiltzen ikasteko ere bai, erabiltzaileak liburutegiaren funtsak, erabilgarritasuna eta maileguen egoera kontsulta ditzan.

Irakurgela barneko kontsulta-zerbitzua

Liburutegiak irakurgela bat du monografiak eta aldizkako argitalpenak kontsultatzeko eta Internetarako sarbidea duen ordenagailu bat erabiltzeko.

Etixerako mailegu-zerbitzua

Zerbitzu honek funts monografikoak liburutegitik kanpo erabiltzeko aukera ematen du.

Etixerako maileguak erreserbatzeko aukera ere ematen du; hau da, katalogoan kontsultatutako obraren bat, kontsultaren unean mailegu- egoeran badago, aldeztu aurretik eskatzeko aukera. Horrez gain, maileguak berritzeko edo maileguan hartutako obraren mailegu-epea luzatzeko aukera ere eskaintzen dugu, baldin eta beste erabiltzaile batek aldeztu aurretik erreserbatu ez badu.

Maileguan eraman ezin diren materialen kasuan, erreprografia-zerbitzua dago, eta horren bidez material horiek fotokopiatuta edo eskaneatuta ematen dira.

Liburuen arteko maileguen zerbitzua

Erabilgarri dauden funts guztiak erabiltzen dira, bai Liburutegia / Dokumentazio-gunean, bai liburutegitik kanpo. Horrela, liburutegien arteko maileguaren bidez, liburutegiak ez dituen funts monografikoak beste liburutegi batzuetan bilatzen eta lortzen dira erabiltzaileari emateko.

Dokumentuak banatzeko zerbitzua

Liburutegia / Dokumentazio-guneko edo beste liburutegi batzuetako dokumentu teknikoak eta/edo zientifikoak, aldizkarietako artikulak eta liburuetako kapituluak edo beste liburutegi batzuetan aurkitu eta bidaltzen dira.



19. taula Liburutegia/Dokumentazio-gunearen datuak	
Erantzundako bibliografia- eta informazio-kontsultak	36
Irakurgela barneko kontsulta	16
Etixerako maileguak eta maileguak berritzea	75
Liburutegien arteko maileguak	25
Dokumentuak banatzea	347
Prestatutako, zabaldutako eta web-orrian argitaratutako Hirigintza eta Ingurumenari buruzko Buletinak	3
Prestatutako eta zabaldutako beste gaietako buruzko Buletinak	52
Hirigintza eta Ingurumenari buruzko Buletinen jasotzaileak	606
Web-orrian argitaratutako Liburu Berrien Buletinak	2
Liburutegiaren web-orriaren egindako bisitak	5.000 inguru

Informazioa hedapen selektiboko zerbitzua


LLiburutegiak aldizka hirigintzari eta ingurumenari buruzko buletinak egiten ditu, eta gai horietan interesa duten pertsonetara bidali eta web-orrian argitaratzen ditu. Buletinek informazio eguneratua jasotzen dute, ataletan banatuta: berriak, bibliografia, legeria, jurisprudentzia, ikastaroak eta jardunaldiak, web-orriak eta blogak.

Beste gai batzuei buruzko informazio-buletinak ere prestatzen dira aldizka, eta gai horietan interesa duten pertsonen artean ere zabaltzen dira.

Zabalkunde- eta komunikazio-zerbitzua

Liburutegia / Dokumentazio-guneko web-orriaren bidez datu hauek zabaltzen dira:

- Informazio orokorra
- Zerbitzuak
- Lege-arauak
- Katalogoa
- Aldizkariak
- Baliabideak
- Liburu berrien buletina
- Hirigintza eta Ingurumenari buruzko Buletina
- Esteka interesgarriak
- Zerbitzuen karta





Itzulpengintza, interpretazioa, terminologia eta administrazio-hizkera

IZO, Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

IZOk, agindu zaizkion eginkizunak betetzearren, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek eta erakundek agindutako testuak itzuli eta berrikusi ditu, eta, horrekin batera, interpretazio-lanak ere egin ditu. Horiez gain, "bestelako atazak" ere egin dituzte IZOko kideek, hau da, Itzulnet aplikazioan jasotzen ez ziren itzulpengintzaren berezko zereginak (prozedurak, tresna automatikoen mantentze-lanak...).

Barneko prozedurak eta funtzionamendua hobetzeko hausnarketa-saioak ere jarri ditu martxan, berariaz sortutako batzordeen bidez.

Hitz-kopuruak kontuan hartuta, guztira, 19 milioi hitz baino gehiago itzuli edo berrikusi dira 2025ean, hau da, aurreko urtekoaren aldean, paretsu. Ez da datu txarra, funtzionarioek beren kabuz itzulpen edo sorkuntza gehiago egiten duten seinale baita. Gogoratu behar dugu IZOren helburua ez dela itzultitako hitzen kopurua handitzea, itzulgaien eta itzulpenen kalitatea hobetzea baizik. Horretarako, beti itzultzen jardun beharrean, IZOren helburuetako bat da funtzionarioen lanerako oinarrizko diren testuak itzultzea, euskaraz lan egin dezaten. Landutako espedienteen kopurua pixka bat jaitsi da, 7.902 izan baitira guztira 2025ean (benetan burututako itzulpenak eta berrikusketak).

Esan behar da berrikusketa, proportzioan, gero eta pisu handiagoa ari dela hartzen itzulpengintzaren kaltetan. Labur esanda, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarirako (EHAA) lanek hartzen dute IZOren lan-kargaren zatirik handiena. Arlo horretatik kanpo, berrikusketak oso urriak dira. Datuei erreparatu besterik ez dago: 2025ean 5.592 berrikusketa egin ditugu, eta horietatik, 87 besterik ez ziren EHAAz bestekoak. Hau da, 5.505 berrikusketa eragin dizkigute EHAAko testuek. Kopurua onartezina da: tipologia horretako espedienteak tramitazio-lan handia ematen dute, eta, egia esanda, ez dakarte itzulpenek dakarten onurarik; itzulpenetan euskarazko bertsioaren informazioa jasota dago (nork sortu, noiz, nola...), erabilgarri dago itzulpen-memoretan edo IDABAn, eta esaldi hori berrerabiltzen den bakoitzean hobetu eta eguneratu daiteke. Berrikusketa-espeditenteak, berriz, ez dira berez IZOren sisteman txertatzen, nahiz eta gaur egun berrikuspen batzuk lerrokatzen eta sartzen ditugun gure sisteman jasota egon daitezen. Beraz, datu horien argitan, esateko moduan gara funtzionarioek eguneroko lanean askoz protagonismo handiagoa izan behar lukete hizkuntza arloan, hainbeste ez berrikusteko eta, horretarako, laguntza handikoa da, besteak beste, IVAPeko Idazlagun zerbitzua. EHAAri lotuta, behin eta berriz esan dugu eta berriz nabarmendu behar dugu, normalizazioaren izenean, egokia dela EHAArako espeditenteetan IZOko nahitaez eman beharreko sinadura kentzea.

Bestalde, interpretazioak gora egin du nabarmen, batez ere, Lanbidek eskatutako saioengatik. Itzulpengintzaren beheraka ona den bezalaxe, gorakada hau ere ona da, bilerak, behintzat, euskaraz egiten diren seinale.



Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak lehentasunak ezarri ditu itzulpen-espeditentzen artean. Lege-aurreproiektuak euskaraz ere kalitatez egin daitezzen, sistema berri bat antolatuta dago duela urte batzuetatik, Tramitagune eta Itzulnet elkarri lotuta. 2026an doitu beharrekoa doitu da, probak egin ere bai, apurka hasteko asmoz. Horri esker, xedapen jakin batzuen puntu jakin batzuetan, derrigorrez igorriko zaizkio testuak IZOra, itzuli edo berrikusi daitezzen, garaiz, ez azkeneko unean.

Itzulpenen artean, nabarmentzeko modukoa da lege kontsolidatu batzuk eguneratu direla eta, batez ere, Europako bost erregelamendu itzuli direla, baita arlo horretako bateratze terminologikoa egin ere.

Abokatu izateko bigarren deialdiko azterketa ere itzuli dugu IZOan.

IDABA

IDABA IZOren itzulpenen datu-basea da, itzulitako testuak kontsultatzeko eta itzulpenari buruzko informazioa eskuratzeko. Ikusita urtearen hasieran ohikoa baino gutxiago elikatuta zeukala IZOK IDABA, 2025. urtearen azken hiruhilekoan, IZOK bere lan aplikazioan ataza berezi bat erantsi du IDABA sistematikoki elikatzeko. Abenduaren bukaerako 54 dokumentu zeuden sartuta; guztira, 6.800 segmentu elebidun. Corpus elebidun handia da, orain arte, EAEko Administrazio osoarentzat zegoena, eta, gaur egun, herritarrentzat ere erabilgarri dago, Internetetik. Esan behar da, erabilera asko jaitsi zela itzultzaile automatiko neuronalak martxan jartzeaz batera. Esaterako, 2024an ia 34.000 bisita inguru izan zituen administrazioetik, eta Internetetik 409 bisita. Aldiz, 2025ean, 25.402 bisita izan zituen administrazioetik. Hori bai, Internetetik iaz baino apur bat gehiago izan zituen, 487, eta 84 esportazio.





20. taula Itzulpenak eta berrikusketak			
2025	GUZTIRA	2025	GUZTIRA
ESPEDIENTE KOPURUA (I+B)	7.902	HITZ KOPURUA (I+B)	19.168.655
ITZULPENAK		ITZULPENAK	
Itzulpenak IZO		Itzulpenak IZO	
EHAA	584	EHAA	2.767.529
Orokorrak	1.009	Orokorrak	3.701.385
IZOn guztira	1.593	IZOn guztira	6.468.914
Itzulpenak Hornitzaileak + IZO		Itzulpenak Hornitzaileak + IZO	
Hornitzaileak EHAA	392	Hornitzaileak EHAA	1.251.174
Hornitzaileak Orokorrak	825	Hornitzaileak Orokorrak	5.846.824
Hornitzaileak guztira	1.217	Hornitzaileak guztira	7.097.998
Itzulpenak GUZTIRA	2.042	Itzulpenak GUZTIRA	12.944.822
BERRIKUSKETAK		BERRIKUSKETAK	
EHAA	5.005	EHAA	5.436.476
Orokorrak	87	Orokorrak	165.267
Berriskusketak guztira	5.092	Berriskusketak guztira	5.601.743
Xede-hizkuntza EUSKARA (I+B)	7.780	Xede-hizkuntza EUSKARA (I+B)	18.634.361
Xede-hizkuntza GAZTELANIA (I+B)	122	Xede-hizkuntza GAZTELANIA (I+B)	534.294

21. taula Itzuli edota berrikusitako testu-motak			
	Hitzak	Eskaerak	Ehunekoak
Ebazpenak (EHAA)	5.056.570	2.590	% 32,78
Iragarkiak (EHAA)	547.372	1.990	% 25,19
Aginduak (EHAA)	2.957.580	985	% 12,47
Prentsa-oharrak	1.767.735	483	% 6,11
Txostenak	1.988.317	241	% 3,05
Dekretuak (EHAA)+ Dekretuak	875.592	304	% 3,85
(egitura – izendapen EHAA)	1.146.525	179	% 2,27
Eusko Jaurларitza-Ebazpenak	882.169	121	% 1,53
Gidak	99.496	150	% 1,90
Legebiltzarreko kontuak	214.598	67	% 0,85
Eusko Jaurларitza-Aginduak	64.789	40	% 0,51
Gutunak, aktak...	221.336	75	% 0,95
Akordioak (EHAA)	259.726	29	% 0,37
Arau-txostenak (COJUA...)	43.879	53	% 0,67
Jakinarazpena (EHAA)	251.028	67	% 0,85
Eusko Jaurларitza -Akordioak	22.181	18	% 0,23
Zirkularrak	87.227	58	% 0,73
Arartekoa	208.126	41	% 0,52
Ereduak	3.463	13	% 0,16
Ediktuak (EHAA)	129.763	4	% 0,05
Liburuak	200.910	12	% 0,15
Arauk (BOE)	30.920	4	% 0,05
Arauk (EAE)	1.814.515	377	% 4,77
Bestelakoak			



22. taula Interpretazio-saioen bezeroak	
Bezeroak	Saio kopurua
Gobernantza Saila	32
Lanbide	25
Hezkuntza	21
Osalan	10
Instituto de Máquina Herramienta	7
Ongizatea, gazteria eta erronka demografikoa	6
Justizia eta Giza eskubideak	5
Zientzia, Unibertsitate eta berrikuntza	5
Emakunde	4
Uren Partzuergoa	4
IVAP	4
Eudel	4
Kultura eta Hizkuntza Politika	3
Itzarri	3
Hezkuntzako irakasle eta heziketa-langileak	2
Arabako Batzar Nagusiak	2
Arabako Foru Aldundiak	1
Haurreskolak	1
Etxebizitza eta hiri agenda	1

23. taula Interpretazio-saioak (2022-2024)				
	2022	2023	2024	2025
Interpretazio-saioak	101	98	74	140

Interpretazioa

Interpretazio-zerbitzuetan, ehun saiotik oso gora ibili gara 2025ean, zehazki, 140 saio egin ditugu. Gure bezero nagusia Gobernantza Saila izan da beste behin ere (saioen ia laurdena, % 22,86). Gure bezeroetatik nabarmentzeko modukoak dira, era berean, Hezkuntza Saila (% 15) eta Osalan (% 7,41).

Nolanahi, inongo zalantzarik gabe, Lanbide da aurtengo gorakada eragin duen eskatzailea. 2025ean, hainbat batzorde eta kontseilutara joateko deitu digute eta, guztira, 25 saiotan aritu gara euskaratik gaztelainera (% 17,8). Oso ongi hartu dugu gorakada hau, esan nahi baitu, bileretan behintzat, euskaraz egiten ari direla lana. Normalkuntzaren seinale deigarria da eta nahi genuke gorakada hau ez galtzea, edo, are gehiago, beste eremu batzuetara ere zabaltzea.

Itzultzaile eta interpreteen prestakuntza

Prestakuntzan 17 jarduera izan dira guztira 2025ean. Prestakuntza-saio horietan 145 ordu inbertitu dira guztira.



Terminologia



Bilaketa Alfabetikoki Saikapenaren arabera

Euskara

Herri-ogasuna, Zergak

Aurrekontuak

Aurrekontuak egitea

Aurrekontuak egitea

Aurrekontu Publikoen Araubidea Hiztegia EUSKALTERMen kontsultagai

Australiako RMIT Unibertsitatearen Itzulpen gintza eta Interpretazio Ikasketak atalaren 50. urteurreneko ekitaldiaren harira, hiru aurkezpen prestatu eta egin dira, gai hauei buruz: “Euskalterm eta Terminologia Batzordea”, “Idazlagun, euskarazko dokumentuak zuzentzeko eta hobetzeko zerbitzua”, eta “Elebide, hizkuntza- eskubideak bermatzeko zerbitzua”.

Biologiako izendegiaz arduratuko den Terminologia Batzordearen lantalde teknikoa eratu, eta abian jarri da. Lantaldeak aztergai izan ditu: *Animalien euskarazko izenak finkatzeko oinarrizko irizpideak* eta *Odonatuen izendegia tearekin lankidetzan*.

EUSKALTERM datu-banku terminologikoan kontsultagai dauden hiztegi terminologikoak sakontzen eta eguneratzen jarraitu da: hiztegi batzuetan, definizioak edo sarrera berriak gehitu dira, eta, beste batzuetan, termino zaharkituak eguneratu eta inkoherentziak zuzendu. Horretaz gain, kontsulta puntualak erantzun dira, eta hustuketa eta proposamen terminologikoak egin Itzultzaile Zerbitzu Ofizialean euskaratu beharreko erreferentziarako lege-testu batzuetarako. Langintza horretan guztian, 13 hiztegi terminologiko landu dira, eta, hala, Euskalterm/Izoterm datu-base terminologikoak elikatzen jarraitu da, 5.375 sarrera landuta.

EUSKALTERM datu-banku terminologikoaren kudeaketa-aplikazioa hobetzeko hainbat ekarpen egin da, eta, ildo horretan, hiztegi terminologikoak banaka kontsultatzeko aukera eskaini, Informatika Unitatearekin lankidetzan.




Administrazio Hizkeraren Arloa

Hainbat lan egin ditugu 2025. urtean. Hona hemen horietako potoloenak zehaztuta:

Administrazioa Euskaraz aldizkaria

Hiru hilabeterik behin argitaratzen den aldizkaria, 1993an sortua.

- Aldizkariaren ale guztiak Interneten daude eskuragarri, [IVAPeko webgunean](#).
- Aldizkariarekin batera, Solasaldiak izeneko eranskina ematen dugu argitara. 32 orrialdeko eranskin horretan, ospe handiko pertsonaiaren bati egindako elkarrizketa sakon bat eskaintzen dugu urtean behin. 2025an, Xabier Kintana elkarrizketatu dugu.



2025eko Solasaldiak izeneko eranskinaren azala

24. taula Administrazioa Euskaraz aldizkaria

Argitaratutako zenbakiak	Harpidedun kopurua
127	14.463
128	14.467
129	Bertsio digitala argitaratu dugu soilik
130	Bertsio digitala argitaratu dugu soilik

Administrazio hizkera argia bloga



Iturria: Ainara Azpiazu, Administrazioa Euskaraz aldizkaria, 91. zk.

Administrazioa hizkera argiaren bidetik

Bi astetik behin postak argitaratzen ditugu gure blogean, bat euskaraz eta beste bat gaztelaniaz. Batzuetan bi bertsioak ia itzulpen hutsa izaten dira, baina beste batzuetan, edukiak guztiz ezberdinak dira (gai berberaren ingurukoak izan arren). 2025ean 24 post argitaratu ditugu euskaraz eta beste 24 gaztelaniaz.



IVAPeko sare-sozialak

Hamabost egunero mezuak argitaratu ditugu sare-sozialetan gure lanen berri emateko: aldizkariko kontuak eta blogekoak.

Plateako literalak

Urtean zehar hainbat alditan EJIETik Plateako bertsio berrien literalak bidaltzen dizkigute guk estandarizatu eta normalizatzeko. 2025ean 337 literal izan ziren euskaraz eta beste horrenbeste gaztelaniaz.

Etxebizitza Saileko webgunea

Etxebizitza Saileko webgunearen atal bat, Biziguneri dagokiona, estandarizatu eta normalizatu dugu 2025ean. Gaztelaniazko bertsioa bakarrik. Hori onartu ondoren, jarriko gara euskarazko bertsioarekin.


Ikastaroak

Aurrez aurreko zein lineako ikastaroak eman ditugu (euskaraz eta gaztelaniaz). Datu hauek Hizkuntza prestakuntza Arlokoen atalean jasota daude.

Dudanet

Dudanet zerbitzutik 5 zalantza argitu ditugu 2025ean. Zalantza hauek administrazio hizkerarekin edo administraziozko dokumentuekin dute lotura.

< [Hasiera orria](#)



[Hasiera](#)

[Erabiltzaile erregistratuentzako sarbidea](#)

Hemen zaude: **Hasiera**

<p>EUSKAL TERMEN BILATU</p> <p>Gure datu-basean hitz edo termino jakin baten ordaina aurkitu ez baduzu, saia zaitetz hemen.</p>	<p>DUDANETEN BILATU</p> <p>Datu-basean orain arte bildutako galdera-erantzun guztiak kontsultatzeko aukera daukazu.</p>
<p>ERABILTZAILEREGISTRATUEN GUNEA</p> <p>Datu-baseko informazioa kontsultatzeko, zure galderak egiteko, datu pertsonalak aldatzeko, eta proposamenak egiteko.</p>	<p>DUDANETEN ERREGISTRATU</p> <p>Erregistra zaitetz, DUDANET zerbitzuaren aukera guztiak erabiltzeko.</p>



Informatika Unitatea

IVAPeko aplikazio informatikoak kudeatzea eta mantentze-lanak egitea

Egokitzapen-mantentze-lanen artean, honako hauek aipatu behar dira:

Matrikula-orri digitala abian jarri da.

Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko aplikazioan; Hizkuntza-prestakuntza eta normalizazio zerbitzuari eragiten dioten hobekuntzen artean, perfil asimetrikoak kudeatu ahal izateko bitartekoak egokitu dira (aplikazioan zein zuzenketa orrietan (irakurgailu optiko bidezko zuzenketa egiteko), eta Hizkuntza Eskakizunetako Salbuespenen Erregistroa martxan jarri da.

Prestakuntzako ikastaroak kudeatzeko aplikazioan artxiboko modulua ezarri da, eta irakaslearen ataria garatu da.

Aldizkarien kudeaketa aplikazioa hobetu eta birdiseinatu da.

Terminologiari dagokionez, Euskalterm (datu-base terminologikoa) kudeatzeko aplikazioan hainbat lan egin dira:

- Hiztegien kudeaketa aurreratua egiteko tresna garatu.
- Aldaketa masiboak egiteko tresna garatu.
- Euskalterm eta Itzuliren arteko lotura garatu.
- Hiztegiak gaika ikusteko aukera garatu.

IZOri lotuta, Itzulnet itzulpen-espeditenteak kudeatzeko aplikazioa eta buletineko aplikazioaren arteko komunikazioa hobetu da.

< IVAP

ivap Administrazio Publikoaren Euskal Institutua

Euskalterm
Terminologia banku publikoa

BILAKETA

HIZTEGI TERMINOLOGIKOAK

KONTSULTAK ETA IRADOKIZUNAK

LAGUNTZA

Hiztegi terminologikoen bilatzailea:

Administrazioa eta zuzenbidea

Administrazio Elektronikoak Hiztegia	Administrazioarekiko Auziak Hiztegia	Aurrekontu Publikoen Araubidea Hiztegia	Datu-babesa Hiztegia
Ekonomia Ituneko zergak	Erregistro Zibila Hiztegia	Hauteskundeak Hiztegia	Herri-ogasuna Hiztegia
Hirigintza Zuzenbidea Hiztegia	Kirol-zuzenbidea Hiztegia	Negoiazio Kolektiboa Hiztegia	Prozedura Kriminala Hiztegia
Prozedura Zibila Hiztegia	Toki Administrazioa Hiztegia	Zigor-arloa eta Espetxe-zaintza Hiztegia	Zirkulazioa Hiztegia

+ Arteak

+ Ekonomia eta enpresa


+ Gizarte-galaxia

Garapen informatiko berriak

Zinpeko itzultzaileen erregistroaren kudeaketa integralerako aplikazio berri bat garatu da. Funtzionalitate nagusiak hauek dira:

- Inskripzioa.
- Kudeaketa.
- Ziurtapena.
- Argitalpena, IVAPen web-orrian

EKI planaren barruan ezagutza transmititzeko aplikazioan, fitxak baliozkotzeko modulua garatzen amaitzen ari da.

Ezagutza transmititzeko fitxa ES | EU 

Fitxa Fitxen Historikoa Iradokizunak

Lanpostuaren datu orokorrak ⓘ

Plazaren Kodea:	<input type="text"/>
Saila/Erakundea:	IVAP-Administ. Publikoaren Euskal Inst.
Zentro organikoa:	KOORDINAZIO ETA KUDEAKETAKO IDAZKARITZ.
Antolaketu-unitatea:	Zerbitzu Orokorak
Lanpostua:	INFORMATIKAKO TEKNIKARIA
Izen-abizenak:	<input type="text"/>

Lanpostuarekin lotutako zereginak ⓘ

Iragazketa irizpideak


Fitxaren betetze-maila: 95%

Monografian jasotako zereginak ⓘ

- Aplikazio informatikoak aztertzea
- Proiektu bakoitzaren alde aurreko bideragarritasun-azterketa aztertzea

Beste erakunde batzuekiko lankidetzak informatikoa

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren, Eusko Legebiltzarraren eta Bizkaiko Batzar Nagusien esku jarri da hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazioa, euskarri informatiko osoa emanez.





Berdintasun Unitatea

IVAPek 2025. urtean berdintasunean aurrera pausoak emateko lanean jarraitu du, erakundearen jarduera-eremu eta gune guztietan, berdintasun unitatearen bitartez gainerako arlo guztiekin elkarlanean.

Horrez gain, legegintzaldi honetan, 2025-2028 berdintasun-plana egiteko prozesua planifikatu du Berdintasun batzordearen baitan.

2025. urtean legegintzaldiko planeko diagnostikorako datu-bilketa egin da eta, urteko plan operatiboaren betetze-maila aztertu eta neurri zuzentzaileak ezarri dira.

Urteko plan operatiboaren betetze-mailari dagokionez, %85ean bete da eta egin ez direnak kanpo arrazoiak izan dituzte gauzatu ahal ez izateko.

Helburu eta ekintza horiek 2026ko plangintzan txertatu dira. Hortaz, ondorioztatu dezakegu, lan bikaina egin dela eta urteko helburuak egoki bete direla.

Aipatutako Berdintasun-plana 2025-2028 Plan estrategikoan barneratu da ardatz estrategiko gisa. Berdintasun-plana Plan Estrategikoaren barruan kokatzea erakundeak berdintasunarekiko duen konpromisoa erakusten du, baita berdintasun-politikan aurrera egitekoa ere bai.

Berdintasun Unitatearen egitekoak, besteak beste, ondorengoak dira: IVAPen berdintasun-planak eta -programak proposatzea, haien jarraipena egitea, genero-ikuspegia txertatzea erakundearen jarduera-eremuan, erakundeko pertsonalari aholku ematea, pertsonalaren prestakuntzari buruzko diagnostikoa eta proposamenak egitea, eta berdintasun-politiken koordinazio teknikoan parte hartzea.


Aurreko zereginen artean, pertsonalaren prestakuntza izan da beste erronka garrantzitsu bat 2025. urtean. Izan ere, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginaren 18. artikulua aurreikusten duen moduan: “EAEko botere publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte beren langile guztiei emakumeen eta gizonen berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan derrigorrezko oinarritzko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra eskaintzeko, lege honetan biltzen diren xedapenak bete daitezzen eta, horretaz gain, administrazio-jardueran genero-ikuspegia benetan txertatzea ahalbidetuko duen jakintza praktikoa bermatzeko.”

Agindu berria egikaritzeko, bi norabidetan egin da lanketa: barne mailan IVAPeko langileekin eta zerbitzuari lotuta administrazio-erakundearen langile guztientzako eskaintza landuta.

Lehenengoari dagokionez, 2024ean bezala, IVAPeko langile guztientzako oinarritzko prestakuntza saioa eskaini da.

Bigarrenari dagokionez, IVAPek (Prestakuntza Zerbitzua, Zuzendaritza eta Berdintasun Unitateak) Emakunderekin elkarlanean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langile publikoen berdintasun arloko prestakuntza-ibilbidea diseinatu du. Batetik, administrazio publikoko langile guztiek egin beharko duten oinarritzko prestakuntza eskainiko da (hiru ikastarok osatzen dutena) eta, bestetik, lanpostuaren arabera ikastaro espezifikoak.





Bide beretik, erakundearen berdintasunaren kultura eta sentsibilizazioa sustatzeko, bi ekintza nagusi egin dira. Alde batetik, world kafe formatuan hiru hilean behin IVAPeko langileentzako saio praktikoak egiten hasi gara. Lehenengo saioak kontratu eta dirulaguntzetan berdintasun-klausulak txertatzekoak izan dira. Beste alde batetik, hilero informazio-pilula bat bidali zaie langile guztiei berdintasunarekin lotutako gaien inguruan.

Beste erakunde batzuekiko koordinazioa

IVAPeko Berdintasun Unitateak lan aktiboa egiten du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordean eta baita Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomoetako Berdintasun Batzorde Iraunkorrean ere.

Besteak beste, lehenengoan, EAEko soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiaren lanketan parte hartu du. Eta, bigarreanean, III. Berdintasun-plana egiteko plangintza diseinatzen aritu da.

Era berean, Gobernantza eta Autogobernu saileko Berdintasunerako talde teknikoan ere parte hartzen du.

Azkenik, Argentinako Kordobako Gobernu Ordezkaritzaren bisita instituzionalaren programako saioetako batean parte hartu da, Emakunderekin lankidetzan.




6 Argitalpenak



IVAPek bakarka zein beste batzuekin batera argitaratutako monografiak

MÉNDEZ NÚÑEZ, María Isabel
Régimen jurídico de la contratación pública estratégica de género
 Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2025. ISBN: 978-84-7777-710-6. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-711-3



(Hainbat egile) Zuzendariak: ALONSO GARCÍA, Ricardo eta UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio
La implementación del Derecho de la Unión Europea y su control judicial.
 “European Inklings (EUi)” bilduma, 28.
 Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2025. ISBN: 978-84-7777-712-0. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-713-7



LARRINAGA ORTIZ, Mikel
El socorro de los infelices. El impacto de las reformas asistenciales en Guipúzcoa (1750-1850)
 Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2025. ISBN: 978-84-7777-718-2. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-719-9



ARANA LANDÍN, Sofía
El Concierto Económico como palanca de cambio para la transición a la economía circular y la bioeconomía en Euskadi
 Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2025. ISBN: 978-84-7777-714-4. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-715-1

(Hainbat egile) Zuzendariak: BUSTOS GISBERT, Rafael eta GARCÍA ROCA, Francisco Javier
Fortalecimiento de la democracia y el estado de derecho a través de la inteligencia artificial
 Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2025. ISBN: 978-84-7777-708-3. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-709-0



(Hainbat egile) Zuzendariak: RIPOL CARULLA, Santiago eta ZELAIA GARAGARZA, Maite
La aplicación de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea por los legislativos: avances en la materialización de los derechos fundamentales
 Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2025. ISBN: 978-84-7777-716-8. Ed. digitala ISBN: 978-84-7777-717-5



IVAPen argitalpen seriatuak

Administrazioa Euskaraz


Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 1993. ISSN: 1576-5563. 2025: 127, 128, 129 eta 130 zenbakiak. "Solasaldiak" 22 zenbakia.



Administrazio Publikoaren Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Administración Pública



Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 1981. Lau hilekoa. ISSN: 0211-9560. 2025: 131, 132 eta 133 zenbakiak.



Pertsonak eta Antokunde Publikoak Kudeatzeko Euskal Aldizkaria = Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas

Oñati (Gipuzkoa): Administrazio Publikoaren Euskal Institutua, 2011. Sei hilekoa. ISSN: 2173-6405. 2025: 28 eta 29 zenbakiak; eta 7 ale berezia.



#EUSKADIBERRIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO